

# Manipulazio festa Ekialde Hurbilean

**M**endebaldeko botere finantzarioa eta bere esanetara dauzkan hedabide eta intelektual globalizazio zaleak urduri daude. 1990eko hamarkada amaieratik botere politikoa, ekonomikoa, kulturala eta militarra galtzen ari dira. 2005. urtean Triadako herrialdeek (Kanada-AEB, Europa eta Hego Korea-Japonia) munduko populazioaren %14rekin, BPGren %74,2 zuten beraien esku. BRICS herrialdeek aldiz (Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrika), planetako biztanleen erdia izanik BPGren %13 ordezkatzen zuten soilik. Bost urte beranduago, 2010ean, Triadak %54,5 jaitsia zuen bere partaidetza munduko ekonomian, BRICSak, aldiz, %28ra iritsi ziren. Orduko iragarpenek 2050ean BRICS herrialdeak munduko ekonomiaren %43 ordezkatuko zutela zioten eta Latinoamerikako ezkerreko aliatuekin eta Ekialde Hurbilekoekin erraz gaudituko zuketena Triada eta haren aliatuen (Arabiar penintsulako erresumak eta Zeelanda Berria-Australia) pisu ekonomikoa.

Egoera horren aurrean, 2010etik aurrera, AEBek eta bere aliatuek iragarpenak bete ez daitezela estrategia berri zuten. Pobretutako herrialde gehienentzat baliabideen kontrola berreskuratzea eta hauen ustiakuntza bideratzea da garatzeko lehen pausoa. Horregatik, petrolioaren eta gasaren prezioari eraso egin zion Mendebaldeak bere Arabiar penintsulako aliatuekin koordinatuz. Estrategia hori elikatzeko Libiaren soberania lapurtu eta beraien kontrolpera eraman zuten.

NATOk herrialdeei eta arabiar erresumei Libiako erregimen aldaketa bortitza musu-truk atera zitzaizen. Hedabideek datuak ezkutatu eta gezurrak zabaldu zituzten interes inperialistak mozorrotu eta esku-hartzea irensteko giroa sortzeko. Halere, jokaldiak geroz eta narrasagoak izan ziren. Behin gola



Asier Blas

EHU-KO IRAKASLEA

@AsierBlas

Sirian operazioa errepikatu nahi izan dute egungo gobernu estigmatizatuz, Al Qaeda eta ISIS armatuz, nazioarteko legediaren kontrako bonbardaketa ilegalak eginez, aliantzako armada batzuen zuzeneko partaidetza bultzatuz, eta gezur eta manipulazioen zaparrada amaigabe bat sustatuz

sartu bazuten ere, bigarrenean huts egin dute. Sirian operazioa errepikatu nahi izan dute egungo gobernu estigmatizatuz, Al Qaeda eta ISIS armatuz, nazioarteko legediaren kontrako bonbardaketa ilegalak eginez, aliantzako armada batzuen zuzeneko partaidetza bultzatuz, eta gezur eta manipulazioen

zaparrada amaigabe bat sustatuz. Guztia ez da nahikoa izan: Errusiak, Iranek eta Txinak muga jarri diote NATO eta bere aliatuen esku-hartzeari.

Gerra ez da amaitu, baina, Barack Obamak eta globalizazioaren bozeramailea den *The Economist* aldizkariak, besteak beste, argi adierazi dute Alepporen askapena Mendebaldearen porrota dela. Gogoratu behar dugu Aleppon ez zela gobernuaren kontrako oposizioerik antolatatu eta ez zela 2011n manifestazioerik egon. 2012an jihadistek hasi zuten konkista, baina orduan hedabideek ez ziguten kontatu setio hori. Lau urte beranduago Siriako Gobernuak ekialdeko Aleppo askatu du. NATOk bataila galdu duenez, gerra mediatikoa irabazteko edozein gauza egiteko prest dago. Nazioarteko kazetari guztiak eta NBEko delegazio guztiak Siriako Gobernuak edo kurduen kontrolatzen dituzten aldean daude, izan ere, matxino jihadistien aldean bizi-rauteko aukerak gutxi dira, alde batean Al Qaeda eta salafisten arteko koalizioa dago eta bestean, ISIS. Halere, inongo informazio iturririk gabe errepikatu digute "sarraski" bat egin dutela Siriako indar armatuek eta Errusiak (nazioarteko legedia errespetatuz borrokatzen ari dena). Frogak zein dira? Zero. Lehengo pertsona batzuk kasko zuriekin antzezlanak egiten jarri zizkiguten, gaur erabat frogatuta dago muntaiak zirela, areago, AEBek kasko zurien buruari debekatu egin zioten beren lurraldean sartzea lotura terroristak izateagatik. Azken muntaia lau militante jihadistaren bideo eta elkarrizketa koordinatuak izan dira, inolako filtrorik gabe hedabideetan zabaldu direnak, nahiz eta beraien facebook eta twitter kontuetan garbi geratu zen Al Qaeda edota ISISekin zituzten loturak. Bitartean, Aleppoko herritarren ospakizun irudiak ezkutatu egin dizkigute. ■